

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2. MAILA

Azterketa idatzia

A

EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Irakurmena
- Idazmena

Eta ordubete eta 45 minutu izango dituzu osorik egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposaturiko denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	10	20 puntu	45 min inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60 min inguru
	Irakurmena eta idazmena	25	50 puntu	1 h 45 min

2010eko lehen deialdia



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IRAKURMENA

1. TESTUA

Jarraian, Pili Kaltzadak *Deia* egunkarian idatzitako artikulua irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondoren idatzi erantzunak laukian, adibidean egiten den bezala.

Sei segundo



Pili Kaltzada

Egunotako hotzarekin minutu batetik gora behar izaten dut autoa martxan ipintzeko. Huskeria, nolana ere. Zeren eta, zer da minutu bat? Ezertxo ere ez. Edo bai. Nire autoak erantzuteko behar duen minutu horretan, hamar ume hil egingo dira munduan. Beste horrenbeste gertatuko da goizean hartuko duzun autobusera igo eta martxan jarri bitartean. Kafea eskatu eta azukrea nahasteko behar duzun denboran, berdin-berdin. Baita zutabe honen bigarren paragrafora iristeko behar duzun denbora-tartean ere.

Action Aid izeneko erakundeak eman du datua, eta ez dut zertan zalantzan jarri. Munduan mila milioi lagun gosetu omen daude gaur egun, eta kopuru hori haziz joan da gosearen egoerari kontu hartzen hasi zitzaionez geroztik. 2005. urtetik hona ehuneko hogeitahanditu da kopuru hori. Lehen baino gose gehiago dago gaur egun munduan; inoiz baino gose handi, ikaragarri eta zabalago. (Honaino iristean hamar haur hil egin dira, irakurtzen hasi zaren unean bizirik zeudenak).

Harrigarri gertatu izan zaizkit beti era honetako zenbaki borobilak, zelan kalkulatzen dituzten ez baitakit. **Txitean-pitean** ezagutarazten dizkigute horrelakoak, baina kalkuluaren nolakotasuna gutxienekoa da kasu honetan. Izan ere, datuen zehaztasuna **gorabehera**, asko dira, gehiegi, ustez aurreratua den mundu honetan gose diren herritarrak.

Nire facebook-eko auzoan bizi den adiskide batek galdetu zuen bere horman aurreko domekan: “noiz egingo dugu **basakeria** hau salatzeke manifestazio handia?”. Protesta egitea merezi duela pentsatu dut, baina ez daukat batere argi noren kontra altxatuko genukeen gure ahotsa. Laguntzarik askatzen ez duten gobernuen aurka? Bai noski. Elikagaien ordez armak esportatzen dituzten enpresen kontra? Jakina. Eta automobila axolagabe pizten dugunon aurka? Geure **erosotasuna ezbaian jartzen** ez dugunon aurka? Geure garapenaz bestalde den gose **barkaezina** geldiarazteko ezertxo ere egiten ez dugunon kontra?

Adibidea:

0. Zertan ari da idazlea testuaren hasieran?

a. Eguneroko zereginetan.

b. Denbora-pasa ari da.

c. Denbora irabazi nahian ari da .

1. Zer gertatzen da minutu batean?

a. Gertaera larriak eta egunerokoak.

b. Garrantzi gutxiko gertaerak.

c. Zutabea irakur daitekeela.

2. *Action Aid* erakundeak zer dio?

a. Datuetan gorabeherak ikusi direla.

b. Goseari neurria hartu zaiola.

c. Goseak gora egin duela.

3. "**Txitean-pitean**" erabiltzen duenean, zer adierazi nahi du?

a. Zenbakiak noizean behin jakinarazten direla.

b. Zenbakiak isilka ematen direla aditzera.

c. Zenbakiak garrantzi gutxi dutela.

4. Datuen zehaztasuna "**gorabehera**" esaten duenean, zer esan nahi du?

a. Datuen zehaztasunean gorabehera handiak daudela.

b. Datuak zehatzak izan ala ez, adierazgarriak direla.

c. Datuei zehaztasuna falta zaiela.

5. "**Basakeria**" hitzak zeri egiten dio erreferentzia?

a. Manifestazioa egin behar izateari.

b. Gosez hildakoak zenbaki hutsak bihurtzeari.

c. Gosearekiko gure axolagabekeriari.

6. "**Erosotasuna ezbaian jartzea**" zer da?

a. Gure bizimodua zalantzan jartzea.

b. Gure erosotasuna baztertzea.

c. Gure bizimodua goraiatzea.

7. Zergatik dio gosea "**barkaezina**" dela?

a. Goseak ez duelako barkatzen.

b. Gosea ez zaiolako onargarria iruditzen.

c. Goseak daudenek ez digutelako barkatuko.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- a	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

2. TESTUA

Xabier Martin kazetariak *Berria*n idatzitako artikulu bat irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Idatzi testuko zatien **letrak laukietan**, adibidean egiten den bezala.

Sackletonen Whiskiaren bila



Ernest Henry Shackleton irlandarra (1874-1922) Hego polora inor baino lehen iristen saiatu zen, baina ez zuen lortu. 1907an *Nimrod* itsasontzian abiatu zen *Farhest South* espedizioan, ____0____. Negu gorria eta janari falta oztopo gaindiezinak izan ziren. Hala ere, espedizio guztiak bizirik itzuli ziren etxera. “Hildako lehoia baino, bizirik dagoen astoa nahiago izango zenuela pentsatu dut”, esan zion emazteari kapitain irlandarrak.

Urtebete eman zuen *Nimrod* itsasontziak izotzetan, ____1____. Espedizio luze horren testigantza ematen duten hainbat txabola ikus daitezke Antartikan oraindik ere. Horietako batean ezustea jaso zuten txabolok ikertzen zituzten Zeelanda Berriko arkeologoek 2006an. Izan ere, egurrezko lurzorua azpian, ____2____, *Mackinlay & Co* markakoak. Mende bateko izotz-geruza gogorak ez ziren utzi kaxak hartzen. Orain, berriz, whiskia Zeelanda Berrira eramateko erabakia hartu dute, eta datorren urteko urtarrilean, ____3____.

Shackletonen txabolaren azpian 25 kaxa daude, baina arkeologoek bi baino ez dituzte aterako, Antartika kudeatzen duten hamabi

herrialdeek adostutako akordio batek horretara behartzen ditu eta. Botilak Zeelanda Berrira eramateko asmoa dute whiskiaren inguruan hainbat ikerketa egiteko, Antartikako udan, eta hauek burututa, ____4____.

Haatik, *Whyte & Mackay* Eskoziako destilategiak, *McKinlay* marka partitzen duenak, desadostasuna agertu du eta whiskia eskatuko duela adierazi du. 1907ko espedizio hura hainbat enpresak babestu zuen, dirua zein hornigaiak emanda. *Mackinlay & Co* enpresak edaria eman zien abenturazaleei; beraz, ____5____.

Richard Paterson, *Whyte & Mackay*ren maisu dastatzailea, irrikan dago ____6____. “Kortxoazko tapoiak egoera onean badaude, whiskiak hobera egingo zuen ehun urte hauetan” dio. Eta noski, horrela gertatuz gero, ____7____.

Botilen gaineko eskubideek eztabaida piztu dute, baina badago argitu barik jarraitzen duen misterioa: ____8____?

Berria, 2009ko azaroa (egokitua)

Jarri testu zatiak dagokien hutsunean. Idatzi erantzunak beheko laukian.

- A.- Eskoziako destilategiak uste du eskubide osoa duela whiskia berreskuratzeke
- B.- zergatik lurperatu zuten whiskia?
- C.- baina bi urte geroago amore eman zuen helmuga 180 kilometrora zuenean**
- D.- espedizio berri bat irtengo da izotza zulatzeke tresneria egokiarekin
- E.- propaganda kanpaina handia abian jartzeko asmoa dute
- F.- berriro Ingalaterrarako bidea hartu aurretik
- G.- urte luzez gorde dituen txabolara itzuliko dituzte
- H.- izotzetan harrapaturik, 25 kaxa whisky aurkitu zituzten
- I.- edaria esku artean edukitzeke eta whiskiaren egoera zein den aztertzeke

Aukeratu testu zatiak eta idatzi letrak laukietan, adibidean egiten den bezala.

0.- c	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-	8.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

3. TESTUA

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta lotu testu zati bakoitza dagokion izenburuarekin. Idatzi **zenbakiak laukietan**, adibidean egiten den bezala. Lehenengo zatia adibidea da.

Telomeroen tamaina



Carmen Valois

A = 0

Zahartzea bizitzearen ondorio zuzena dela gauza jakina da. Alabaina, zahartze-prozesuaren inguruan, teoria, ikuspuntu eta iritzi ezberdinak daude. Hargatik, gai honi buruzko aipamenak aise topatuko ditugu literaturan, aldizkari zientifikoetan, baita egunkarietan ere.

B

Eta arlo zientifikotik hasita, zera irakurri dut berriki: “Telomeroak dira zahartzearen erantzuleak”. Bai, hala ondorioztatu dute behintzat *Nature Genetics* aldizkarian kaleratu berri duten ikerketa-lan batean. Hor agertzen dutenez, “Telomeroen tamaina da gakoa”. Izan ere, telomeroak kromosomen parte dira eta haien tamaina izaten da adin biologikoaren erakusle: zenbat eta motzagoak izan, orduan eta zaharragoa izango da gure organismoa. Hori kontuan izanik, bi zahartze mota daudela diote: bat biologikoa, kronologikoa bestea.

C

Bestetik, Luis Rojas Marcosek, New Yorkeko Unibertsitateko psikiatria irakasleak zera dio: “Zahartzea gizakiok dugun irakasgai zailenetarikoa da, zahartzearen ondorioei beldurra diegulako”. Eta gaineratu du: “Gure gizarteak zahartzea ukatu nahi du. Horregatik saiatzen gara gazteago ematen”. Haren aburuz, bizitzari baikor begiratzea lagungarri izan daiteke, hala nola, hobeto bizitzen jakiteko, eta ondorioz, zahartzen ikasteko.

D

Geurera iritsita, hona hemen Karmele Jaio idazleak egunkari batean argitaratutako hitzok: “Bizitzan zehar gure gain hartutako ardurek zahartzen gaituzte. Haztea eta ardura gehiago izatea elkarrekin doaz ia beti. Eta buruan hazten zaizkigun ile zuri asko ez dira gure adinaren ondorioa, ardura eta kezkek lapurtu dizkiguten ordu guztiena baizik”.

E

Eta pentsatzen hasita, badugu zahartzearen teoria osatzeko adina elementu. Hain zuzen ere, badugu oinarri teoriko-zientifikoa: telomeroen tamaina. Badugu esperientziaren ahotsa: zahartzen ikasi beharra. Eta badugu senaren taupada: ardurek zahartu egiten gaituzte. Orain hipotesiak falta zaizkigu eta hona hemen otu zaizkidan bi: “Bizitzeko erak baldintzatzen du gure zahartzeko modua” eta “ardurek telomeroen tamainan zerikusia dute”.

F

Hala ere, badakit teoria honek ez duela gaindituko kontrol zientifiko zorrotz bat; badakit ere, norbaitek esan dezakeela sinpleegia dela. Baina niri, une batez, hausnartzeko betarik eman dit. Pentsatzeko, batik bat, bizitzari aurre egiteko jarreraren dagoela koska. Eta beharbada, baikor izaten lortuko dugula telomeroen tamaina luzatzea. Ez al zaizu iruditzen, irakurle?

Argia, 2010eko martxoa

Lotu testu zati bakoitza dagokion izenburuarekin. Izenburu bat soberan dago.

(0) Bizitzeak zahartzea dakar, bidea nola egiten den da eztabaidagai

1. Zientziak lotura aurkitu du zelula osagai batzuen eta zahartzearen artean
2. Bizitzak baino bizitzak dituen zailtasunak eta ematen dituen lanak dira zahartzearen arrazoi
3. Zaila da zahartzea zer den ulertzea onartu nahi ez denean
4. Oraingoz zientziak ezin du frogatu baikor izateak zahartzean ondorio onik duenik
5. Zahartzea erraz onartzen dugu, bide naturala delako
6. Ikuspegi guztiak batera jarrita zahartzaroa ulertzeko osagaiak ditugu

Idatzi dagokion zenbakia beheko laukietan:

0. Adibidea: A = 0

Testu zatiak	A	B	C	D	E	F
Izenburua	0					

IDAZMENA

Egitekoa

Jarraian, iritzi-artikulu bat idazteko proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu (kontuan hartu zer eskatzen den).

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**

Aukeran dituzun bi gaietatik **bat egin** behar duzu.

1. gaia

Euskaltegiko aldizkari elektronikoan albiste baten inguruko iritziak bildu nahi dituzte.

Albiste hau da:

Sei gazte galduta Pirinioetan: lainoak harrapatu zituen Monte Perdido inguruan

Idatzi zure iritzia. Horretarako, zure esperientzian edo ingurukoenean oinarrituta, ondoko puntu hauek **erabil ditzakezu**:

- Mendia eta arriskua lotuta doaz? Zergatik?
- Zergatik gertatzen dira istripuak? Norena da errua?
- Zer egingo zenuke horrelakorik ez gertatzeko?
- Nork ordaindu beharko lituzke erreskateak?



2. gaia

Euskaltegiko aldizkari elektronikoan albiste baten inguruko iritziak bildu nahi dituzte.

Albiste hau da:

Zabalik zegoen azken zinema-areto handia itxiko dute datorren hilean

Idatzi zure iritzia. Horretarako, zure esperientzian edo ingurukoenean oinarrituta, ondoko puntu hauek **erabil ditzakezu**:

- Zergatik itxi dira garai bateko areto handiak? Zer galdu da?
- Gaur egun jende gutxiago joaten da zinemara? Zergatik?
- Zein aukera berri dauzkagu orain? Zein dira abantailak eta desabantailak?
- Nolakoa izango da etorkizuna? Nola aldatuko dira gure ohiturak?



Gaia:

5

10

15

20

25

30

35

40

45

50

55

60

65

70

75

BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia 50 Gaunditzeko 25	Irakurmena	gutxienez 10	20 puntu	45 min inguru
	Idazmena	gutxienez 15	30 puntu	60 min inguru
Ahozko proba 50 Gaunditzeko 25	Entzumena	gutxienez 10	20 puntu	25 min inguru
	Mintzamena	gutxienez 15	30 puntu	10 min inguru
GUZTIRA		gutxienez 50	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 50 puntu beharko dituzu, 25 proba bakoitzean.
Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea.
Emitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI.**

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.